



Zinta zerra

BENETAN RC 400, RC 470 modeloa

Zinta zerra makina arriskutsuenetako bat da, abiadura handian funtzionatzen duen ebaketa erreminta delako. Beraz, segurtasun neurri bereziak hartu behar dira, arriskua txikitzeko makina erabiltzean.

Dokumentu honetan, zinta zerraz lana seguru egiteko bete behar diren arauak eta jarraibideak bildu dira.

Deskribapena



Hautapen eskakizunak

Kontuan hartu beharreko dokumentazioa:

Dokumentazioak eduki beharrekoak:

CE marka.

CE adostasun aitortpena.

Fabrikatzailearen edo hornitzailearen erabilera eta mantenimendu jarraibideen eskuliburua, merkaturatzen den herrialdeko hizkuntzan. Tresna erabiltzean, kontuan hartu behar dira fabrikatzaileak emandako jarraibideak eta argibideak.



1215/1997 EDren zehaztapenetara egokitzearen egiaztapena (lan ekipoak).

Aldez aurreko egiaztapenak. Makinaren egoera

Zinta zerrak kontserbazio egoera egokienean egon behar du. Beraz, kalteak edo akatsak dituzten zintak kendu edo konpondu behar dira.

Konexio elektrikoek ez dute kalte edo akatsik izan behar.

Erreminta elektrikoa konektatu aurretik, doitze erremintak edo giltza finkoak kendu behar dira. Pieza birakari batean ipinitako erreminta edo giltza batek lesioak eragin ditzake martxan jartzean.

Egiaztatu elikatze tentsioa tresnaren ezaugarrien plakan adierazitako berbera dela (230V edo 240V-eko tresnak 220V-era ere konektatu daitezke).

Makinaren konexio larakoak erabiliko den korrante hargunerako balio behar du. Ezin da larakoa inolaz ere modifikatu. Ez erabili egokigailurik lur hargunea duten gailuetan. Dagozkien korrante harguneetara konektatutako larako egokiak erabiltzeak txikitu egiten du deskarga elektriko arriskua.

Makina konektatzen den instalazio elektrikoak etengailu magnetotermikoa eta disjuntore diferentziala eduki behar ditu, egoera egokienean.

Kontuz gailua ustekabeen abiaraztearekin. Ziurtatu gelditze posizioan dagoela korrante hargunera konektatu aurretik.

Babestu zeure burua deskarga elektrikoetatik.

Kontuz makina ustekabeen abiaraztearekin.

Makina piztuta dagoenean, langile baten zaintzapean egon behar du beti.

Babesgarri guztiek beren lekuan egon behar dute.

Langileak bete beharreko baldintzak

18 urtetik gorakoa izatea.

Osasun zaintzari dagokionez, lanpostuan aritzeko gaitasun agiria edukitzea.

Prestakuntza espezifikoko egiaztatua.

Tresna erabiltzeko baimena.

Erabilera



Erabilera jarraibideak

Tresna erabiltzean, kontuan hartu behar dira BETI fabrikatzailearen erabilera eta segurtasun jarraibideak. Erantsia.

- **Ezagut itzazu zure makinaren ezaugarriak eta funtzionamendua.**
- **Eduki lanpostua garbi eta ondo argizatua.**
- **Ez erabili zerra leku arriskutsuetan.**
- **Baimenik gabeko langileek lan eremutik urruti egon behar dute.**
- **Erne egon makina piztuta dagoenean.**
- **Kontuz nahigabe piztutako suteekin.**
- **Makina piztuta dagoenean, langile baten zaintzapean egon behar du beti.**
- **Erretiratu doitze giltzak eta giltza mekanikoak.**
- **Pieza bat ebakitzean, erabili harentzat egokia den abiadura.**
- **Egiaztatu ebaketa zonan ez dagoela harririk, iltzerik, torlojurik, etab.**

Lan eremua

Eduki lanpostua garbi eta ondo argizatua.

Lan egin oinarri sendo baten gainean, eta mantendu oreka beti. Horrela, hobeto kontrolatuko duzu erreminta elektrikoa ustekabe bat gertatuz gero.

Ez erabili erreminta elektrikoa leherketa arriskua dagoen tokian, erregai likidoa, gasa edo material hautsa dagoen lekuan. Erreminta elektrikoaren txinpartek material hautsa edo lurrenak sutu ditzakete.

Erabili behar ez denean, gorde makina leku seguruan.

Prebentzio alderdi espezifikoak



Egin mantentze lan egokia, eta egiaztatu etengailua ondo dabilela.

Ez atera entxufea kabletik tira eginez.

Deskonektatu entxufea/giltzatu iturria lana amaitzean.

Ez eragin presio handiegirik gailuari. Ez behartu tresna.

Lan egitean, ipini ondo oinak, oreka ez galtzeko.

Ez erabili erreminta atmosfera leherkorretan.

Ez erabili arropa nasairik. Erabili arropa egokia.

Norbera babesteko ekipamendua

Langileak erabili behar ditu:

Arropa egokia.

Segurtasun eskularruak, eskuek irrist ez egiteko eta ebaketarik ez egiteko.

Erabili babes betaurrekoak edo pantaila, piezatik askatzen diren partikuletatik babesteko.

Belarri babesak.

Erabili hautsetik babesteko maskara, hauts asko dagoen lekuan lan egin behar izanez gero.



Prebentzio mantenimendurako gida

Bete itzazu fabrikatzailearen erabilera eskuliburuan jasota dauden mantenimendu eta konponketa jarraibideak eta/edo abisuak.